## EA 21 IKASTETXEKO DIAGNOSTIKOA 16-17/ LURZORUA

| ONDORIOAK | IKASLEEN PROPOSAMENAK | HARTUKO DIREN NEURRIAK |
|---|---|---|
| **LOINAZPE**<br>**Patioko zoruaren azterketa.**<br>Ikasleak harrituta gelditu ziren gure ikastetxe inguruko zelaiek hamarkadetan zehar izan duten bilakaerarekin. Ez zuten inolaz ere hori ikustea espero. Garai bateko larreak eraikuntzak, futbol zelaiak, kiroldegiak…<br><br>Orokorrean, dena ondo eta egokia da ematen zaion erabilerarako.<br><br>Espazio gehiago ere hartuko lukete baina zona berdeak edo zuhaitzak ez dituzte aipatu.<br><br>Denek onartu zuten patioko edozein tokitan zaborra aurkitu daitekeela | Hauek dira proposatutako aldaketak:<br><br>-Futbolean aritzeko belar artifiziala, eroritakoan minik ez hartzeko.<br><br>-Asfaltoari pintura bereziren bat eman ez irristatzeko.<br><br>-Adokinak nibelatu, putzuak ekiditeko.<br><br>-Iturriren bat jarri.<br><br>Denek onartu zuten zerbait egin behar dela.Geletan hausnarketa egin | Ingurumen batzordean ikasle ordezkariekin bildu da, geletan hitz egin dena ezagutzeko.<br>Hondakin ontzien berrantolaketa egin da eta ontzi gehiago jarri dira. |
| **TXINDOKI**<br>**Lurzoruko eremuen azterketa.**<br>Ondorioak:<br>Institutuko lurzoru portzentajea %25ekoa da gutxi gora behera.<br><br>Horiek nahiko ondo kontserbatuta daude eta zuhaitz dezente daude.<br><br>Eremu batzuetan aldapa dezente dago eta zuhaitzak babesten dituzte higaduratik, beraz, hauek mantentzea oso garrantzitsua da.<br><br>Une honetan lurzoruko gune batzuen egoera | **TXINDOKI**<br><br>Obraren ondorioz sortutako hondakinak beste gune batean biltzea.<br><br>Landaredia zaintzea komeni da eta kendutako zuhaitzen ordez beste batzuk landatzea.<br><br>Obran lurzoruari egindako kaltea, trinkotzea, hobetzeko eremu hori harrotu eta landare berriak landatu. | Zuhaitz egunean zuhaitzak landatu. |

| | | |
|---|---|---|
| ez da oso ona kontutan izanik obrak egiten ari direla,  zapalduta eta trinkotuta daude.<br> Lurzoruaren zati bat (piska bat) okupatu egin dute,.<br>Zuhaitz batzuk ere moztu egin dituzte. | Hondakinik ez bota lurzoruan.<br>Kutsagarriak diren produktuak ahalik eta gutxien  edo modu orekatuan erabili.<br><br>Inguruko zuhaitzak botatzea galarazi, higadura edo luiziak ekiditeko.<br><br>Lurzoruari (buztintsua) harri kaskarrak bota porositatea handitzeko eta putzuak ez egiteko.<br><br>Etorkizunari begira saiatu dagoen lurzorua ez okupatzen. | |